

2005-2006

Azpeitiako eskolako AGENDA 21

Hondakinak murriztu, kontsumoa gutxituz

Ikasturte honetan, Azpeitiko ikastetxeak Eskolako Agenda 21 proiektuaren barruan, hondakinen galan murgildurik aritu gara. Iaz gai bera landu bagenuen ereduak kontsumoari buruzko atala gehiago sakondu nahi izan dugu.

Zeintzuk dira gure kontsumo ohiturak?

Noraino publizitateak kontsumora bultzatzen gaitu?

Prest al gaude gutxiago kontsumitzeko?

Ba al du gaur egungo kontsumoak eraginik hondakinen ekoizpenean?

Nolako herria nahi dugu?

Iraurgi ikastetxeko, Karmelo Etxegarai ikastolako eta Urola ikastolako neska-mutilek galdera hauetara gehiagoei erantzuna aurkitzen saiatu gara, ekintza ugarien bidez.

Ezagutu nahi al dituzue?



AZPEITIKO UDALA



iraunkortasunaren aldean



Jarduerak:

- Gelako klarionaren kontsumoaren diagnostia eta grafikoak
- Ikastetxean erabilitako folioen diagnostia eta grafikoak
- Gelako norberaren materiala aztertu: kartutxera, koadernoak...
- Norberaren arropa, oinetakoak aztertu: jatorria, marka, moda...
- Eskulanak eta idazlanak
- Bideoa: kakaoen jatorria eta lan baldintzak
- Etxean jasotzen den publizitatearen behaketa, erosketa ohiturei buruzko eta arroparen kontsumoari buruzko galdeketak.
- Txikieen arazoa eta hamaiketakoaren azterketa.


Irteerak:

- Lapatz zabortegia
- Berastegi baserrian gaztagintza
- Legazpiko Ontzien Sailkapen planta
- Emaus Gizarte Fundazioa

IRAURGI ikastetxea LH



Berastegi baserrian gaztagintza



Lapatx hiri hondakinen zabortegia




Jarduerak:

- Kontsumoari buruzko galdeketa
- Etxean jasotzen den publizitatearen azterketa.
- Eskolako paper kontsumoa.
- Prentsako iragarkien azterketa
- Eskulanak iragarkiekin



Irteerak:

- Legazpiko Ontzien Sailkapen planta
- Intxaurrendoko Kontsumo eskola

IRAURGI ikastetxea DBH



Legazpiko Ontzien
Sailkapen plantara
joan gara



Jarduerak:


- Aztarna ekologikoari buruzko galdeketa
- Irakurgaiak, horma-irudiak, antzerkia, mezuak aldatu
- Denok egin dezakegu zerbaite, baita zuk ere?
- Eta dena, zeri eskerrak?
- Ikastolako fotokopia, toner eta paperaren azterketa
- Etxean jasotzen den publizitatearen behaketa, erosketa ohiturei buruzko eta arroparen kontsumoari buruzko galdeketak.
- Txikleen arazoa eta hamaiketakoaren azterketa.

Irteerak:

- Bastarrika baserria
- Martinmulino
- Aikur erletegia
- Lapatx zabortegia
- Legazpiko Ontzien Sailkapen planta
- Emaus Gizarte Fundazioa

KARMELO ETXEGARAI IKASTOLA

EMAUS GIZARTE
FUNDAZIOA



HONELA DIBERTITZEN
ZARA?
HAU
EROKERIA!
ZAINDU EZAZU NATURA



Irakurgaiak,
horma-irudiak,
antzerkia, mezuak
aldatu



Legazpiko
Ontzien
Sailkapen
planta



Jarduerak:

- Erosteke ohiturei buruzko galdeketa eta grafikoak
- Hipermerkatuetako salmenta teknikak
- Etxean jasotzen den publizitatearen azterketa.
- Ikastetxeko paper kontsumoaren kalkulua.
- Paper birziklatuaren abantailak
- Eskulanak

Irteerak:

- Emaus Gizarte Fundazioa
- Intxaurrendoko Kontsumo eskola

UROLA ikastola



Fotokopiak
zenbatzen



ESKOLAKO AGENDA 21

**BA AL DAKIZU SUPERMERKATUETAN GEHIAGO
SALTZEKO ZER EGITEN DUTEN?**



ANA



ARKAITZ

Intxaurrendoko
kontsumo
eskola



Emaus Gizarte
Fundazioa



Eskulanak




Ingurumenaren zainketan guztion parte hartzea beharrezkoa denez, guk ere zenbait konpromiso hartu ditugu. Batzuk geure esku geratzen dira, beste batzuk ordea, gurasoen eta herritarren laguntza beharko dute aurrera eramateko

Gure

KONPROMISO PERTSONALAK

- Hamaiketako merkea, osasuntsua eta bilgarririk gabekoa ekarri: ogia, flauta, fruta, zerealak, galletak... edo bilgarriren erabilpena gutxiagotzeko "tapper"etan ekarri.
- Telebistak eragina dauka zenbait hamaiketako aukeratzekoan, kromoak eta oparituak eskaintzen dituztelako eta produktu hauek bilgarri asko izaten dituzte. Horrelakoak gutxiago ekartzea proposatzen dugu.
- Urtebetetzeetan gailera kaxa ekarri gozoki zorroen ordez.
- Gelan sortzen den zaborra aprobetxa badaiten aprobetxatu eskulanetan, musika fresnak egiten... eta bestela ondo sailkatu.
- Txikiea jaten dugunean zakarrontzira paperean bilduta bota.
- Zilarrezko paperaren ordez sukaldekoa erabili edo, zilarrezkoa erabiltzen bada, ez bota, beste baterako gorde.
- Ahal denean oihalezko poltsak erabili.
- Behar duguna bakarrik erosi eta aurreko ikasturteko materiala aprobetxatu: margoak, koadernoak, motxilak...
- Koadernoak, margoak... ez gastatu alferrik.
- Liburu berriak erosi beharrean, bigarren eskuak eskuratu edo trukaketa egin.
- Bildukin gutxien dituzten gauzak erosi. Bilgarria izanez gero, birziklatu.
- Jostailuak eta beste gauzak ondo zaintzea gehiago iraun dezaten eta puskatzen direnean konpontzea edo birziklatzea.
- Zerrenda eginda Joan erosketak egitera; erosterakoan egokia zer den ondo pentsatu, kanpoko itxurari eta modari ez begiratu eta ahal bada bakoitzak bere poltsa eraman.
- Erosketetako poltsa aprobetxatu.
- Erosi aurretik begiratu produktuen jatorria.
- Bidezko merkataritzatik erosi, ahal den neurrian.
- Ahal den guztia birziklatu eta berrerabili.
- Oparitutakoak ondo gorde eta erabili.
- Produktu kontzentratuak eta handiak erosi.
- Freskagarriak, botila handian erosi, latak erosi beharrean.
- Irteeretan hondakin gutxiago sortzeko gure motxilan ondorengo hauek eramatea:
 - Kantinplora urez beteta, laten ordez
 - Telazko esku-zapiak, paperezkoen ordez
 - Fruta edo galletak, gozoki zorroen ordez.
 - Fruta eta sortzen ditugun hondakinak zakarrontzira bota edo bestela motxilan etxera ekartzea.
- Etxepekoekin bildu eta publizitatea ez jasotzea adostu.
- Kontsumismoaren aurkako itsulapikoa egin, erosketak egiteko garaian produktua begiratu eta aztertu ondoren, merkea erostea erabakitzen badut, horren diferentzia itsulapikoan gorde.
- Garraio publikoa erabili.



Gaia ikastetxeetan landu ondoren, talde guztietako ordezkariak Ingurugiro Etxean topo egin dugu gure lana elkar jartzeko eta Udalari luzatu nahi genizkion proposamenak bateratzeko. Eskolen arteko Foro honetatik atera diren eskaerak, Udaletxean alkate jaunaren aurrean aurkeztu ditugu eta hauek izan dira:

Udalaren PROPOSAMENAK

Kontsumoa / hondakinak

- Herritarrentzako kontzientziazio kanpainak egin: kontsumoa murrizteko, berrerabiltzeko (arropak, jostailuak, liburuak) eta birziklatzeko, eta informazio hori zabaldu herriko komunikabideetan.
- Publizitatea gutxitzeko kanpainak egin. Adb: buzoietarako "propagandarik ez" txartelak banatu nahi duten herritarrei.
- Udal garbitzaileek zaborra birziklatu (pape-
ra eta kartoia) udaletxean, eskolan, kale-
an...
- Udaletxean hondakinak sailkatu eta horien kudeaketa bideratu.
- Udalak bere paper kontsumoaren azterketa egin, behar bezala aprobetxatzen den ikus-
teko.
- Birziklatutako tonerrak, kartutxoak, papera... erabili Udaletxean eta herriko toki publikoetan eta bi aldeetatik idatzi. Herritarrei bidal-
tzen zaizkien oharrak sobretan sartu behar-
rean, oharren paperarekin egin sobreak.
- Paper birziklatua erabili aldizkariak eta fes-
tetako programak egiteko.
- Herriko dendek, hipermerkatuek... egin behar duten propaganda arautu: maizta-
suna, kopurua, paper mota... eta parete-
tan eta kristaletan publizitaterik ez jarri.

Energia / hondakinak

- Kaleetan itsatsita dauden txikleak garbitu.
- Kontenedore eta paperontzi gehiago ipini bai herrian eta bai baserri inguruetan eta bere kokapena berraztertu, esaterako, Jose Antonio Agirre plazan edukiontzi denak batera jartzea.
- Eskoletako patioetan eta jolas parkeetan birziklatzeko ontzi txikiak ipini (paperarena eta plastikoarena)
- Baserritarren produktuak eta azokak indar-
tu, baita herriko denda txikiak ere, eta horretarako laguntza eman, herritarrok supermerkatu handietara joan beharrean herrian bertan erosketak egiteko.
- Bigarren eskuko azokak, herriko produktuak eta produktu ekologikoak bultzatu.
- Festetan "erabili eta bota" produktuak ez erabili.
- Bidezko merkataritzako dendak leku ego-
kietan kokatu (jende asko dabilen lekue-
tan) eta urte osoan zabalik egon daitezen laguntza eman.
- Olio eta spraien kudeaketa bideratu eta olio biltzeko leku gehiago ipini eta biltzea sarrago egin.
- Etxeetako zaborra eta enpresetako gal toxi-
koak ibaira botatzen dituenari isun gogo-
rrak jarri.



2005-2006
Azpeitiako eskolako
AGENDA 21



- Kanpoko igerilekuko zakarrentziak gainezka egoten dira. Sarrago hustea edota gehiago ipintzea proposatzen dugu.
- Ura aurrezteko:
 - Komunak berritzean, ura aurrezten dutenak ipini eta erabiltzaileari pegatina baten bidez adierazi (balta lehen ipinita daudenean ere: igerilekuan, kiroldegian...)
 - Ikastolako iturrietan eta kalekoetan ur kopuru handia irteten da eta hau murrizteko zera proposatu nahi dugu, zapaldutakoan bakarrik atera dadila ura edo kopuru txikiagoan atera dadila.
 - Iturri eta komun publikoak hondatzen direnean, lehenballehen konpondu, ura alferrik gal ez dadin.
 - Parketako ureztagailuak kontrolatu, euria egiten duenean ez direlako beharrezkoak.
- Bidegorriak ipini.
- Bizikletentzako aparkalekuak jartzea Iraurgi ikastetxean.
- Jendea oinez ibiltzera bultzatu (txangoak, ikastolara...) eta garraio publiko zerbitzua hobetu. Landetara joateko garraio publikoa bultzatu.
- Ibilgailuak bidetik ibil daitezela; horretarako mendi bideak itxi autoak ez pasatzeko.
- Eguzki plaka gehiago ipini.
- Errege ondoren Gabon argiak itzaili.
- Txakurren hondakinak jasotzeko poteak ipini eta jabeak ez badu hau errespetatzen, isunak jarri.
- Askok ez dakigu non dauden eta zertarako diren "Kontsumo bulegoak". Informazio zabalagoa eman, erreklamazioa egiteko orduan nora joan eta zer egin behar den jakiteko.